

The background image shows a community garden or park area. In the foreground, a man with long dreadlocks, wearing a black t-shirt and a black face mask, is kneeling and working on a wooden structure. To his right, another person in an orange shirt is also working. In the background, a person in an orange shirt is standing on a wooden platform, and another person is visible further back. The area is filled with green plants, vines, and wooden posts. A blue metal staircase with a railing is visible in the upper right. The overall scene is bright and sunny.

**TXIN
PART**

75

**Haurtzaro,
komunitatea
eta auzolana**

Agurra	2
GAI NAGUSIA	3
Berrikuntzak	5
Zuzendaritza	7
Langileak	8
Gurasoak partaide	9
Urmendi	12
Hatzak bete lan	14
Ikastolako taldea	27
Eskolaz kanpokoak	31
Oiartzo	32
Laburrak	33

Hautzaro Ikastola
Elorrondo z/g - 20180 Oiartzun
943 49 16 59
hautzaro@ikastola.eus
LG: SS-129 / 2001

DISEINUA ETA MAKETAZIOA
BATUTA

Kaixo denoi, beste behin ere hemen gatoz Txinpart! aldizkariaren 75. alearekin. Iritsi zaigu 20-21 ikasturtearen amaiera ere. Ikasturte bakoitzak bere bereizitasunak izaten ditu, baina aurtengo hau, luzaro gogoratuko dugun horietakoa izango denaren irudipena daukagu. Pandemiak markatutako ikasturtea izan dugu eta hainbat gertatera izan baditugu ere, orohar, horrelaxe joan izana sinatuko genukeen irailean, ikasturtea hasteko geneukanean. Baditugu pozik egoteko arrazoiak, helburu nagusia ikasleak ikastolan edukitzea jarri genuleko hasiera-hasieratik, eta kasu eta momentu batzuk kenduta, helburu hori erdietsi dugula esan dezakegulako. Segurtasun neurri guztiak bermatuz, gure proiektu pedagogikoekin aurrera jarraitu dugu eta jantokia edo garraioa bezalako zerbitzuak %100ean eskaintzea ere lortu dugu. Galerak ere izan ditugu noski, eskolaz kanpoko ekintzen eskaintza mugatu beharra izan dugu edo ikastolako ospakizun orokorrak ezin izan ditugu ohiko moduan ospatu, baina une oro, burbuila ezberdinez osatutako burbuila handi bat izatea lortu dugulakoan gaude.

Ale honetan dituzue, ikasturteko bigarren zati honetan egindako lanak eta interesgarriak irudi zaizkigun berriak. Esate baterako, oso interesgarria da Ikastolen Elkartek kaleratutako *Gaurtik da bihar* ekimena eta bertan argitaratzen den endekalogo: nolako Eukal Hezkuntza Sistema nahi dugu etorkizunari begira? Gai potoloa, baina, guztion artean, gaur egun daukagun errealitatetik eutsi beharrekoa. Bestetik, pandemia egoeran muga guztiak itxita izan ditugu, baina guk Britainiara gure “eskapadatxoa” egin dugu eta Hautzaroren izenean bertako Redadeg-eko (gure Korrika dena) kilometro bat korri egiteko parada izan dugu, Diwan-eko gure lagunen bitartez.

Hemendik aurrera, ale honetako beste edukiak arakatzea zuen esku utziko dugu. Jarri eroso, ahal bada familian, eta goza ezazue elkarrekin!



BIHAR:

herri 1, 11 oinarri, 111 helburu

Euskal Hezkuntza Sistemak bere baitan jaso behar dituen oinarrien endekalogoak aurkeztu dugu **ikastolen mugimendua osatzen dugun 111 ikastolok**, biharko euskal hezkuntza sistema gaurtik eraikitzen hasteko ekarpena.

11 oinarri ezarri ditugu, hiru bloketan; oinarritzko printzipioak, hezkuntzak landu beharreko balioak eta hezkuntzaren antolaketa.

Euskal Herri osorako hezkuntza sistema propio bat eraikitzen hasteko abiapuntu gisa aurkeztu dugu, baina baita Araba, Bizkai eta Gipuzkoarako aurreikusten den Hezkuntza Lege berriari begira ere. Izan ere, ez da erraza izango, baina aukera dugu hiru lurralde horietarako Hezkuntza Lege berri bat aurrera ateratzeko.

Horregatik eskatu diegu ausardia Eusko Jaurlaritzari, alderdiei eta hezkuntza eragileei, nahi eta behar dugun hezkuntza ereduaren inguruan adostasun sozial berri bat eraikitzeko. Hezkuntza Legeari buruzko eztabaida sakona eta mamitsua nahi dugu ikastolok, eta batez ere, eztabaidarako giro on bat, **lege horretarako gakoa izango baita eragile guztiok dugun onena ematea eta elkarrekin ematea**.

Zein da gure herriak behar duen hezkuntza eredia eta zein da horrek eskatzen duen sistema? Egin dezagun indar berezia galdera honi erantzun bateratua emateko. Izan dadila hori eztabaida zabal eta sakon baten emaitza, denon artekoa eta hemen garatua, eta gure hezkuntza sistemak dituen gabezia nagusiei aurre egiteko balioko duena; hastepeneko marra gorriak gabe, elkarlanerako borondatearekin. **Gure hezkuntza sistemak eta gure euskarak merezi dute eta.**

Nolako gizartea nahi dugu etorkizunean?

Gure eskarmentu eta jakintzatik, gure herriaren BIHARKOA eraikitzen laguntzen saiatuko gara, atzo ikasi genuenetik eta gaur egiten dakigunetik. Baina ez gara gure buruarentzat ari. Ikastolok bete-betean heldu nahi diegu bihar izango ditugun beharrei. **Gure ekarpenarekin gatoz, umil eta indartsu, Euskal Herriko eragile eta erakunde guztiekin hitz egitera.**

Ugariak eta handiak dira gure herriak dituen erronkak, eta horien artean bada bat guretzat oinarri-oinarritzkoa: HEZKUNTZA. Hezkuntza da, besteak beste, herri baten izaera, ezaugarriak, baloreak... lantzeko tresna garrantzitsuenetako bat. **Hezkuntzaz ari garenean, "nolako gizartea nahi dugu etorkizunean?" galderari erantzuten ari gara.** Europako hezkuntza esparruan Euskal Herriak hezkuntza sistema propioa izateko eta arautzeko eskubidea behar du. Euskal instituzioei, hezkuntza kunitateari eta herritarrei dagokie, soilik, hezkuntzaren gaineko erabakiak hartzeko eskumena. Bertatik bertara.

Gugan 60.000 ikasleren gurasoek eta milaka irakasle eta langilek ezarritako konfiantza osoa itzuli nahi diogu gizarteari. **Gure jakintza, gure antolakuntza gaitasuna, gure berrikuntza pedagogikoa, gure herri ekimen zabalak... jartzen ditugu herri honen hezkuntza sistemaren zerbitzura.** Gure erantzukizuna ere badela ulertzen dugu, eta gure erantzukizuna betetzeko prest gaude.

Datozen hilabeteotan ikastolaz ikastola, herriz herri, Euskal Hezkuntza Sistema eraikitzeko proposamenak lantzen ibiliko gara.

Has gaitezen.

Gaurtik da bihar.

Euskal Hezkuntza Sistemak bere baitan jaso behar dituen oinarrien ENDEKALOGOA

Euskal Hezkuntza Sistemak izan behar du:


ONARRIZKO PRINTZIPIOAK

1. **Unibertsala.** Euskal herritar orori hezkuntza eskubidea bermatuko diona. Bazterketarik gabea arrazoi ekonomiko, politiko edo sozialengatik, nahiz jatorriari edo sexuari lotutako edozein ezaugarriengatik.
2. **Euskara eta euskal kultura ardatz dituen.** Benetako murgiltze eredia gauzatuko duena, oraingo Hizkuntza-ereduek ezartzen dituzten desberdintasunak gaindituta. Ikasle guztiei bermatuko diona euskaraz osotasunean bizi ahal izateko maila, duten abiapuntua dutela, eta bizi diren errealitate soziolinguistikoan bizi direla.
3. **Euskal Curriculumetik eraikia.** Oso-osorik, bertatik bertara eraikitako curriculumean oinarrituko dena. Konpetentzien garapenerako ikasgai zerrenda, metodologia eta kosmobisio propioarekin. Ebaluazio sistema hezitzailea eta hobekuntzara bideratua.
4. **Euskal Herria bere osotasunean landuko duena.** Dagokion lurralde bakoitzeko errealitateak kontuan izanik, osotasun batetik abiatuko dena, errealitate guztien aniztasunari zentzu komuna emango diona. Euskal Herriaren lurralde osoak eragingo diona, eta Euskal Herriko hezkuntza-sistemetako ikastetxeen arteko lankidetzaz hitzarmenak bultzatuko dituen.
7. **Ikasleak bere egiten dituen ezaugarrietatik pentsatua.** Ikasleak, euren ikas ibilbidea amaitutakoan, ezaugarri hauek izatera bideratuko dituen: Euskaldun konprometitu eta eleanitzak; beren buruekiko konfiantzadunak; lankidetzan ikaskideak; erabaki hartzaile kritikoak; ekintzaile gogoetatsuak; jokabide etikodunak; sortzaileak; ikusmira zientifikodunak; orekaren zaintzaileak.
8. **Inklusiboa.** Euskal Herrira etortzen direnen jatorrizko izaera errespetatuta, euskal herritar izateko baliabideak eskainiko dizkiena, eta, aldi berean, euren ekarpenak aberastasun gisa ulertuko dituen. Jatorri askotariko ikasleak modu orekatuan eskolaratuko dituen, euren beharrak erdigunean jarrita.

HEZKUNTZAREN ANTOLAKETAZ

HEZKUNTZAK LANDU BEHARREKO BALOREAK

5. **Hezkidetzan oinarritua.** Pertsonen arteko berdintasuna bermatu eta sustatuko duena. Ikasleei tresnak eskainiko dizkiena beren bizitza proiektua aukeratzeko askatasunetik eta aukera aniztasunetik, genero-baldintzatzailearik gabe, besteak beste kultura, erlijio, gizarte klase, egoera funtzional eta sexu orientazio bakoitzaren esparruetan.
6. **Laikotasunean heziko duena.** Sinesmen askatasuna bermatzeko, erlijioak, fede gisa, curriculumetik kanpora utziko dituen, ez bada jakintzaren begirada zientifiko hutsez ekiteko.
9. **Gobernantza demokratikotik antolatua.** Hezkuntza komunitateko kide diren guztien erantzukizun partekatutik bideratua. Ikasle, guraso nahiz langileen hezkuntza prozesuari dagozkion erabaki komunetan eta erantzukizunen banaketan oinarritua.
10. **Ikastetxei autonomia aitortuko diona.** Tokian tokiko hezkuntza komunitate bakoitzak bere proiektua eraginkortasunez garatu ahal izateko, ikastetxe bakoitzari lanean ari den errealitatean eragiteko baliabide materialak ziurtatuko dizkiona, eta gardentasunez eta autonomiaz giza baliabideak zein materialak kudeatzeko eskumena aitortuko diona.
11. **Publiko-herritar eredutik sortua.** Euskal gizartearen izaera parte-hartzaile eta kolektiboan oinarritua, publikotasun eredu berria eraikiko duena, titulartasunari baino, publiko-herritar harremanari kasu egingo diona. Irabazi asmorik gabeko herri proiektuak, gizarte ekonomian kokatuak, hezkuntzaren arloan ongizate-estatuaren oinarrizko helburuekin bat egiten dutenak, sistema publikoaren partetzat hartuko dituen.





Emozioen munduan murgiltzen

Emozioak, bizitzarako ipar! Hik Hasi aldizkariko artikulua batean irakurri genuen esaldi hori, eta guk, Haur Hezkuntzako irakasleok, bat egiten dugu horrekin.

Emozioak, sentitzen duguna, omen dira gure jokabidearen ardatz. Emozioek gidatzen gaituzte, hauek dira giza harremanaren motorra. Eta gure esku dago emozio horiek kudeatzea, gudan eragiten duten jokabidea zein izango den erabakitzea. Gure emozioak identifikatzen, onartzen eta baliatzen ikastea baita heziketa emozionala.

Haurraren mundura hurbiltzeko beraz, emozioen mundura hurbildu behar dugu.

Baina, nola lantzen ditugu emozioak gelan?

Emozioen lanketa Haur Hezkuntzan ez da bolada bateko lanketa, ez da hiruhilabete batean edo unitate bakar batean lantzen soilik, ezta ikasturte oso batean ere. Egunez egun, erronka berriei aurre eginez eta bizipenetan oinarrituz kudeatzen baititugu emozioak. Eta guk, irakasleok, gure esku-hartzearekin, unean-uneo aukerak aprobeztatzen ditugu hezkuntza emozionala lantzeko.

Haur Hezkuntzan, emozioak lantzeko baliabide ezberdinak erabiltzen ditugu, irudiak eta ipuinak, esaterako. Ipuinen bidez, ikasleak liluratuko dituzten emozioak eta mezuak transmititzen saiatzen gara (tristura, beldurra, poza, nazka, haserrea...). Alegiazko protagonisten bizipenen bidez, haurrengana iristen gara.

Musika ere erabiltzen dugu emozioak sorrarazteko: erlaxatzeko, lasaitzeko, adierazteko, gorputza mugitzeko... Honez gain, tutoretza saioak eta bilguneko solasaldiak aukera paregabea dira emozioen munduan murgiltzeko (Zer gertatu zaizu? Nola sentitzen zara? Eta nola sentitu dela uste duzu?).

Psikomotrizitate saioak emozioen lanketan duten garrantzia ere aipatu behar dugu. Mugimenduaren bidez haurraren garapen fisiko, psikiko eta soziala ahalbidetzen duten saioak baitira. Honez gain, ikasturteko plangintzan txertaturiko jarduera ezberdinak ere gauzatzen ditugu (Nolakoa naiz? Zer sentitzen dut? Gai naiz!).

Baina, benetako lanketa, eguneroko bizipenetan oinarritzen da. Donna Apellanizen formazio saio batean jaso genuen bezala "Emozioak sentitzeak, pertsona egiten gaitu" eta gure haurrak eguneroko harremanetan, dituzten liskarretan eta haserreetan,

ziurgabetasun egoeretan... Azken batean, dituzten bizipenetatik eta sentitzen dutenetik ikasten dute.

Adimen emozionala, beraz, norberaren garapenaren erdigunean ezarri behar dugu. Emozioen ulermenak eta kudeaketak ahalbidetuko baitigu, momentuan sor litezkeen arazoei edo zailtasunei begirada positibo batez aurre egitea.

Norberaren garapenean ez ezik, harremanetan ere eragin zuzena du emozioak eta sentimenduak era egokian kudeatzeak. Pertsonen arteko komunikazioan, aniztasunarekiko errespetuan, inklusioan eta kulturartekotasunean, enpatia eta asertibitatea bezalako balioak lantzea eta garatzea ezinbestekoa da aukera berdintasunean oinarritutako jendarte bat nahi badugu; besteen emozioak interpretatzea, ulertzea eta hauen baitan gure jokabidea egokitzea baita gizarte jasangarri eta parekide baten oinarria.

Zoriontasuna da, norberaren oreka emozionala lortzearen ondorioetako bat. Bizitzako edozein egoeraren aurrean egiten dugun interpretazioa, momentuan pertzibitzen dugun errealitatearen irakurketaren ondorioa baita. Beraz, auto-kontzeptu sendo eta auto-estima altu batek, eragin zuzena dauka pozik, triste, haserre, urduri ala kezkatuta bizitzeko.



Eta zer da ba bizitza, momentu oro, egunero, astero, hilero, bizitza osoan zehar norbere barnean, lagunartean, familian edo jendartearen sortzen diren espero gabeko egoerei erantzutea ez bada?

Beraz, gure leloari aipamen eginez, **BIZITZARAKO HEZKUNTZAN hazi eta hezi gaitezen!**





Zuzendaritza berritu dugu

Zuzendaritza taldearen erreleboa egitea tokatu zaigu aurten. Eman den prozesuaren berri eman nahi dizuegu, gardentasun osoz.

2021eko otsailaren 18ko Kontseilu Errektoreak gaia landu zuen, zuzendaria eta taldea aldatzea tokatzen zelako. Ikastolako Barne Arautegia jarraituz, **zuzendaria hautatzeko prozedura martxan jartzea erabaki** zuen Kontseilu Errektoreak.

Honako erabakiak hartu zituen: batetik, deialdia irekitzea eta A prozedura martxan jartzea; eta, bestetik, A prozeduraren egutegi bat ere adostea.

Zer esan nahi du A prozedura martxan jartzeak?

Zuzendari gairen bat aurkeztea. Barne Arautegiak adierazten duen eran, aurkezten den zuzendari gaiak bere egitasmoa eta berarekin batera zuzendaritza talde osatuko duten ikasketaburuak aurkeztu behar ditu txosten batean. Txosten hori ikastolako idazkariaren esku utzi behar du, hautagai aurkezten den epe berdinean.

Halaxe gertatu zen. A prozedura jarri genuen martxan 2021eko martxoaren 1etik martxoaren 18ra, borondatezko hautagaiak aurkezteko.

2021eko martxoaren 18ko Kontseilu Errektorearen bileran puntu hori landu zuten. A prozeduraren bidez zuzendari gai

bat hautatu zuen Kontseilu Errektoreak proposamena entzun ondoren, **hautagaitza proposamen bat jaso baitzuen.**

Ondoren, lan bazkideen botaketaren txanda izan zen, otsailaren 18an Kontseilu Errektoreak adostu bezala. **Bozketa eguna martxoaren 24a** izan zen, goizean zehar.

Lan bazkideek botoen emaitza aldekoa izan zen. Gauzak honela, datozen urteetako zuzendaritza honakoa izango da:

- **Zuzendaria:** Aritz Gonzalez Arruabarrena (egungo zuzendaria)
- **HH ikasketaburua:** Izaskun Sistiaga Legorburu
- **LH ikasketaburua:** Josean Arruabarrena Oiartzabal
- **DBH ikasketaburua:** Pilar Altuna Ariza

Hautzaro Ikastolako Zuzendaritza Taldea

Ikastolaren gestioaren funtzionamendurako organu kolektiboa da Zuzendaritza Taldea, plangintzak burutzeko zuzendaritzaren koordinazio markoa.

Ikastolako Zuzendariak, ikasketa buruek eta, horrela beharko litzatekeen unetan, administrariak osatzen dute. Erabakiak adostasunez hartzen saiatuko dira eta hau ez balego, zuzendariak, ikastolaren funtzionamendu orokorraren arduradun bezala, hartuko luke erabakia.



Eskerrik asko, eta gero arte!

Covid-19a gure bizitzetara iritsi zenetik hainbat ohitura aldatu behar izan ditugu, eta ospakizunak alde batera utzi. Horien artean, zoritxarrez, azken bi ikasturteetan erretiroa hartu duten ikastolako langileei omenaldirik ere ezin izan diegu egin. Balio dezatela lerro hauek omenaldi xume gisa, benetakoa egin bitartean.

Iaz, **2019-2020 ikasturtean** hiru izan ziren gero arte esan genien kideak, dagoeneko 64 urteak beteta dituztelako:

- Inaxio Retegi (DBH eta Oiarzo).
- Miren Garbizu (psikologoa).
- Beñar Kazabon (LH).

Aurten, **2020-2021 ikasturtean, berriz, bost:**

- Arantza Urbietta (idazkaria)
- Maria Jesus Retegi (HH)
- Maribi Alonso (DBH)
- Karmele Etxebeste (LH)
- Maria Jesus Etxebeste (garbitzailea)

Aurten erretiratuko dira lehenengo hirurak 2017-2018 ikasturtean aurrejubilatutakoak. Iritsi zaie, orain bai, jubilazioaz gozatzeko garaia.

Esan bezala, iazko ikasturtearen bukaeran ezin izan genuen ospakizunik egin Inaxio, Miren eta Beñar agurtzeko (beste hainbat ospakizun bezala, adibidez, Ikastola Eguna, bertan behera utzi behar izan genuen omenaldia).

Aurten ere ez dugu aukerarik izango ohitura dugun eta merezi duten omenaldia egin eta oroigarria emateko. Ezin dugu bildu eta ospakizun handirik egin oraindik.

Ia datorren ikasturtearen amaieran merezi duzuen bezala agurtzeko aukera dugun, denok elkarrekin eta merienda on baten bueltan.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu egindako guztiarengatik. Izan zoriotsu eta disfrutatu aurrerantzean ere! Garai berria, erronka berriak. Bejondeizuela denei!

Inaxio Retegi



Miren Garbizu



Arantza Urbietta



Maria Jesus Etxebeste



Maribi Alonso, Maria Jesus Retegi, Beñar Kazabon eta Karmele Etxebeste



HHko parkea: mugimendua, esperimentazioa eta lasaitasuna



Iker Goikoetxea Arana paisajista da, kanpo espazioetan aritzen da lanean. Garaiotan kanpoko espazioak birbalarizatu egin dira, are gehiago pandemia egoeragatik. Nahiz eta denetarikoa lanak egiten dituen (lorategiak, parkeak, igerileku naturalak...), "garapen naturalak" ikastetxeetan lan gehiago egitera eraman du, gurasoa ere bada eta. Ofizioak eta gure komunitateko kide izateak, are naturalago egin du Haurtzaroko HHko parkea berritzeko ideia berak lantzea.

Ikastolako hezitzaileek helarazi zioten kezka: kanpoko espazioa pixka bat utzita zegoen dagoeneko, eta ea zer egin zitekeen galdetu zioten. Hezitzaileek eurek bazituzten ideia batzuk: mugimendu jolasen beharra, paretean eskalatzeko boulder-a... Goikoetxeak proposamen bat egin zuen, eta auzolanean eraiki dugu komunitateko kideok: hilabeteko epearen ondoren dagoeneko HHko parke berria du.

Haurren beharretara egokitua

Parke berriak berezitasunik badu, horixe da haurren beharren arabera egin dagoela: hiru gune artikulatzen saiatu gara, logika batekin eta haurren beharretara egokituta. Adibidez, psimotrizitatea lantzeko gune bat dago: boulder-az gain, oreka lan dezakete hurrek ondoan dagoen akazia egurrez egindako jolasarekin. Baina dena ez da mugimendua, ezta ikastea ere, eta lasaitasuna ere barneratu dute proiektuan. Lasai egoteko txokoan, mahai bat dago. Bertan haurrak berrikerian egon daitezke, marraztu, besterik gabe egonean egon...

Goikoetxearen arabera, garrantzitsua da txoko ezberdinak bereiztea: "Esperientziak erakutsi dit mugimendua behar dela, esperimentazioa ere bai, baina baita lasai egoteko txoko bat ere. Eta ez da komeni mugimendurako txokoa eta lasai egoteko elkarren ondoan egotea."



Txokoak gehiago aldentzeko eta trantsizio elementu gisa lehenetik zegoen altzairuzko egitura aprobetxatu dute. Era berean, espazioa berdetzeko baliatu dute: "Huntz landare batzuk jarri ditugu espazioa berdez betetzeko. Horma berdea sortuko du horrek, eta iglu forma hartuko du egiturak. Esperimentazio gunearen kutsua hartuko du, eta pasabide sekretua ere izango da. Zintzilikatzeko aukera ere ematen du. Eta bildutako egitura baten barruan ezkutatu ahal izateko aukera ere bai".

Aurretik hondarra zegoen, eta arazo dezente eman zizkien hezitzaileei, txikiek ikastola guztitik garraiatzen baitzuten. Hori kendu eta ezpal harlauzak jarri dituzte. Goikoetxeak nabarmendu du erosoagoa dela horrela: "Ezpala ez da hain erakargarria patriketan sartu eta ikastolatik eramateko. Gainera, harlauzek jolas moduan ere funtzionatzen dute eta espazioan haurren mugimendua artikulatzen dute". Hemendik eskerrak eman nahi dizkiogu Urkia enpresari, hark oparitu baitizkigu harlauzak.



A! Eta txoko batean baratza ere jarri dute txikieneak, sasoiko barazki eta berdurekin: patata, baratxuria, kalabaza, pepinoa, kalabazina, porrua, tipula, tomatea, piperra, letxuga... Txorimalo eta guzti jarri dute! Gune berriari ez zaio ezer falta.

Komunitatean, auzolanean

Hilabete inguruko lana izan da parkea diseinatzea eta eraikitzea. Goikoetxeak egin zuen diseinua, baina eraiki auzolanean eraiki genuen. Lan egiteko moduan eta jende neurrian asmatu dugula dio: "Asko tokatu zaizkit horrelako lanak ikastetxeetan, baina borondatez gain dakien jendea inguruan izatea garrantzitsua

da: igeltseroak, arotzak... Ez nituen jendearen gaitasunak ezagutzen eta edozer gerta zitekeen. Hasteko nire enpresako pertsona batekin aritu ginen, aditua dena, eta beste laupabost pertsona, lanean bazekitenak. Bigarren txanpa batean auzolan irekiagoa planteatu genuen: pintaketa lanak egiten, lijatu... Horieta errazagoa da denek parte hartzea. Auzolana modu horretan antolatzea askoz eraginkorragoa da emaitzari begira. 4-6 pertsonako neurria horrelako espazio batean nahikoa da".

Emaitzarekin pozik daude hezitzaileak, pozik egileak, pozik gurasoak eta, noski, txikiak. Non mugitu, esperimentatu edo lasaitu badute, kanpoaldean ere. Komunitatearen indarrak egin du posible, beste behin. Biba gu!

0-3 urteko haurren jolasa

JOLASTUZ, IZAN ETA HAZI. Horrelaxe dio Urmendi Haur Eskolako leloak. Jolasaren bitartez ezagutzen du mundua haurrak eta baita bere burua ere. Jolastuz da (izan) eta jolastuz handitzen da.

Haurrak bere sentsazioen eta emozioen arabera eraikitzen ditu sentimenduak, baita bere buruarekiko, harremanekiko eta munduarekiko ere. Horregatik da hain garrantzitsua haur txikiek esperientzia atseginak bizitzea.

Bizitzako lehen bost-sei hilabeteetan haurra heldu erreferentearekin (ama/aita...) atxikituko da. Konfiantza garatu duenean, heldu erreferentearengandik bereizten hasteko prest dago. NI-a eraikitzearen eta joan-etorriaren garaia da, urte betetik hiru urte bitartera garatuko den prozesua hain zuzen eta, prozesu horretan, heldua desagertzearen beldurra agertzen da haurraren.

Heldua galtzearen beldurraren aurrean, haurra bere burua ziurtatzen joango da, bizitzen duena jolasaren bidez sinbolizatuz. Jolasak lagunduko dio errealitatea menderatzen. Horretarako, ondorengo jolas aurre-sinboliko hauek egingo ditu:



BETETZEA ETA HUSTUTZEA:

Edukiontzi bat betetzean eta hustutzean datzan jolas hau, xurgapenaren eta kanporatzearen sinbolizazioa da (ahotik sartu eta uzkitik ateratzearena). Zenbait haurrek lasaitasunez betetzen dute ontzia, gainezka egiten duen arte; beste batzuek, berriz, bete orduko hustu egiten dute; badira hustu nahi ez dutenak, eta nahi bezain azkar betetzen ez dutenak ere bai.



ELKARTZEA ETA SAKABANATZEA:

Objektuak elkartzeak eta biltzeak gorputz unitatearen eraikuntza irudikatzen du, eta objektuak sakabanatzeak, aldiz, gorputz unitatearen galera. Bi ekintza horiekin, objektuak gerturatu eta urruntzearekin, helduaren presentzia eta ausentziarekin jolasten ari da haurra.

JOLAS SENSORIOMOTORRAK:



Hemezortzi hilabete baino lehen, haurra oraindik ez dago ziur zutikako jarreraren. Desplazamendu horiek ez dira ziurrak, eta maiz erortzeko beldurrari loturiko emozioak antzematen zaizkio. Hemezortzi hilabetetik aurrera, ordea, bere burua botatzen du koltxonetara eta aparrezko blokeen gainera, jolasean, atsegin handiz, minik hartuko ez duen lekuan, segurtasuna ematen dion eta bere gaitasunak onartzen dituen heldu baten aurrean. Beraz, 18. hilabetetik aurrera, haurra nahita erortzeko gai da. Zutik ziur dago, eta orain zutikako posizioa galtzea da jolasa. Horrela, haurrak adieraz dezake bere buruaz ziur dagoela, lurrera itzul daitekeela, eta ondoren laguntzarik gabe altxatu. Bere buruarekiko ziurtasun hori erabiltzen du helduei erakusteko haiengandik desberdina dela eta bereiz daitekeela.

Psikomotrizitate gela aproposa da jolas horientzako ere. Esaterako, kulunkatzea, salto egitea, korri egitea, oreka-desoreka, igo-jaitsi... Jolas horiekin bere identitatea autobaieztatzen du; segurtasuna galdu eta berriro lortzeko esperimentatu.



KORRIKA EGITEA:

Behin zutikako posizioan seguru sentitzen denean, pixkanaka-pixkanaka, mugimenduan dagoenean ere orekan egotea lortzen du haurrak, eta korrika hasten da. Espazioan mugitzeko atseginarengatik egiten du korrika. Haurraren gorputza malgutu egiten da eta nahierara aldatzen du modua eta erritmoa.



KULUNKATZEA:

Kulunkatzeko jolas horiek amak haurdunaldian izan duen ibilera kulunkariak edota gurasoak haurra lasaitzeko edo lokartzeko eragiten dituzten erritmo eta luzapen desberdineko mugimenduetan izan dezakete jatorria.



BIRATZEA:

Haurra biraka ibiltzen da bere buruaren edo helduaren inguruan, koltxoneta gainean, edo buruztanka (txiribuelta) eginez. Mugimendu horiek guztiak zurrumbiloan bezala ibiltzearekin daude lotuta. Atsegin horren jatorria jaio aurretiko aldian dago: umetokiaren barruko mugimenduetan. Jaio ondoren ere, helduak behin eta berriz birarazten du haurra: toki batetik bestera eramatean, pixoihala aldatzean, etab.



OIHAL BATEAN BILTZEA:

Bildua izatearen jolas horiek babes eta ongizate nahia adierazten dute, eta horien bitartez bere buruarekin eta bere sententzioekin berriz aurkituko da. Intentsitate handiko mugimendu egoeren ondoren, oso ohikoa izaten da nork bere burua biltzeko jolasak agertzea: tela batekin biltzea, deskantsurako posizio fetala hartzea... Atsegin eta babes nahiaren adierazpenak dira horiek guztiak.



EZKUTATZEA:

Haurra txiki-txikia izanik amak bere eskuekin aurpegia tapatzen zuen garaietan du jolas horrek hastapena. Ausentzia-presentzia, bildu-banatu bizipenak izango dituzte, eta berriz elkartzearen poza esperimendatuko dute. Jolas horiek amaren galeraren aurrean haurra aseguratzen dute. Haurra aurkitua izateko ezkututzen da. Era berean, helduaren irudiaren iraunkortasuna proban jarriko du. Jolasak kitzikapen sentesorial, emozional eta psikiko izugarria sortzen du, eta helduak aurkitzen duen momentu hori atsegin handiz bizitzen du haurrak.



HARRAPATUA IZATEA:

Beste batek harrapatzea (benetan harrapatu gabe) segurtasuna lortzeko jolasa da. Urrutiratu-gerturatu sententzioak esperimendatzeko eta espazioa kontrolatzeko baliagarria da. Heldua behin eta berriz saiitzen da haurra harrapatzen, harik eta haurrak harrapatzailea bera izatea proposatzen duen arte. Horrela, bera harrapatzaile izatera pasatzen denean gairidutuko du haurrak larrimina. Ikus daitekeenez, harrapatze jolasak badu ezkutatzeko jolasarekin antzekotasunik. Helduarengandik ihes egite horretan, litekeena da, haurrak ezkutaleku bat bilatzea eta hala bi jolasak uztartzea.



ETXETXO, ZULOTXO... JOLASA:

Jolas horietan bi egoera mota jasotzen dira: batean, ezkutaleku edo babesleku izan daitezke eta bestean, familian bizi izandako egoerak errepikatzea dute helburu. Etxetxoetan esaterako, erregresioa, babesa eta orobat, ahalguztiduntasuna bizi ditzakete.



SUNTSITZERA JOLASTU:

Ez da bakarrik suntsitzera jolastea, baizik eta transformatzea ere bai. Suntsitutakoa berriz eraikitzeko nahia sentitzeak bere identitatea finkatzen laguntzen du. Psikomotritate saioak helduak eraikitako dorrearen suntsipenarekin hasten dira, eta une horretan emozio kolektibo bizia askatzen da. Horri esker, suntsitzeko atseginak eragin dezakeen erruduntasuna gairiditu dezake haurrak, eta hortik abiatuta ekintzarako bideari ekingo dio.

HH3KOAK, MAZEDONIA EGITEN



*TXANTXANGORRI MOKOFINAREN IPUINAK AUKERA EMAN DIGU
JANARIEZ HAINBAT GAUZA IKASTEKO: JANARI MOTA EZBERDINAK
EZAGUTU, BERAIEK EZAUGARRIAK AZTERTU, SAILKATU... ETA
BUKATZEKO, MAZEDONIA EDERRA PRESTATU ETA DASTATU DUGU.*

IKUSI, IKUSI!

HAUR HEZKUNTZA 4

ZAPABURUTIK IGELERA!

BEGIRA BEGIRA, HAUR BATEK BASO IGEL GORRIAREN ARRAUTZAK EKARRI DIZKIGU GELARA. ARRAUTZETATIK ZAPABURUAK ATERATZEN IKUSTEKO AUKERA IZAN DUGU. ZAPABURU HAUEN BILAKAERA ERE GERTUTIK JARRAITU DUGU: ATZEKO HANKAK AGERTZEA, AURREKO HANKAK, ISATSA DESAGERTZEA... BATZUK EZ DUTE AURRERA EGIN.

BAINA BA AL DAKIZUE NON BUKATU ZUTEN GURE GELAKO IGELEK?

TXARAKO ERREKAN ASKE UTZI DITUGU!





HAUR HEZKUNTZA 5

LAGUNAK BABESTUZ SUPERHEROIAK GARA!

NORBANAKOEN GORPUTZ EZAUGARRIEN ANIZTASUNAZ JABETZEKO ETA, ERA BEREAN, GORPUTZ HORIETAN ERAIKITZEN DEN IDENTITATE BAKAR ETA ERREPIKAEZIN HORRETAZ JABETZEKO, HAINBAT LANKETA EGIN DITUGU HH5EKO HAURREK.

ANIZTASUNAREN AURREAN ETA, BATEZ ERE, ANIZTASUN HORREK DAKARTZAN EZBERDINTASUNEN AURREAN, ELKARREKIKO ERRESPECTUA ZEINEN GARRANTZITSUA DEN JORRATZEN ARITU GARA, BIZIPENETAN OINARRITUTAKO DINAMIKAK GAUZATUZ.

FUNTSEZKOA DEN MEZU BATEN LANKETARI EGIN DIOGU: TALDE GISA, ERRESPECTUZKO JARRERA EDUKIZ GERO, GUZTIOK AUSARTUKO GARA SENTITZEN DUGUN BEZALAKOAK IZATERA ETA DESIO DUGUN HORI EGITERA.

HORREN HARIRA, AUSARTEN KLUBA OSATU DUGU HONAKO LELOA ABESTUZ: *“LAGUNAK BABESTUZ SUPERHEROIAK GARA! ZATOZ GUGANA! GORA, GORA, GORA, AUSARTEN KLUBA!”*

AUSARTEN KLUBEKO FESTA OSPATUZ GAIARI AMAIERA EMAN GENION HIPATIAKO PARKEAN. EMANALDIAN ANTZERKIA ETA IPUINEN ERREPRESENTAZIOEN AURKEZPENAK EGIN GENITUEN, BERTSOAK ABESTU ETA DANTZA EDER BAT ERE DANTZATU GENUEN. EGURALDIA LAGUN, PRIMERAN IGARO GENUEN GOIZA!



LEHEN HEZKUNTZA 1

Makinak ezagutzeko aitzakia ederra

Kaixo, lagunak!

Azken txanpa honetan makina sinpleak zer diren eta nola funtzionatzan duten lantzen ari gara LH1. mailan. Azken proiektua makina sinple bat sortzea da eta horretarako KIMU material didaktikoak proposatzen duen obra literarioa hartu dugu ardatz: *Loinatzen loa* album ilustratua. Bertan, makinaren gaia oso presente dago eta lanketa asko egiteko bidea eman digu.


Loinatzen loa album ilustratuaren sortzaileak Castillo Suarez idazlea eta Mikel Antero ilustratzailea dira eta ilusioz aztertu ditugu haien lanak. Gainera, Mikel Antero Urrutikoetxea, ilustratzaile aparta izateaz gain, Haurtzaro Ikastolako ikasle ohia dugu, baita urte askotan *Txinpart!* aldizkariko kolaboratzailea ere! Beraz, osagai horiek guztiak zukugailuan sartu eta bertara gonbidatu genuen Mikel.

Mikelen ibilbidea ezagutzeko aukera izan genuen, marrazteko teknikaz ere galdetu genion eta marrazketa erakustaldi bat ere eman zigun.

Guk ederki zukutu genuen bera eta eskertza gisa, gure irribarreez gain, berak *Txinpart!*-erako egindako lehenengotariko komiki bat eman genion.

Mikelek ilusioz gogoratu eta eguneratu zituen ikastolako oroitzapenak eta guk zuku ederra edan genuen bere azalpen eta istorioak entzunaz.

Zu bai makina, Mikel!



Gure irratsaioa entzun nahi al duzue?



Kaixo, lagunok!

Aurten ere, urte berezia izan arren, gure irratsaioa martxan jarri dugu! Agian proiektu honekin ariko garen azken urtea izango da eta indar eta gogo handia jarri dugu gure irratsaioak prestatu, entseatu eta grabatzeko.

Atal mordoa dituzte gure irratsaioek: albisteak, iragarkiak, ipuin kontaketak, txiste eta asmakizunak, musika... baita elkarriketak ere! Gure herriko hiru pertsonaia ezagunekin elkartu gara eta beraiekin solasaldi politak izan ditugu. Lur Korta, Gaizka Saizar eta Ander Imazi galdera pila bat egin dizkiegu eta oso-oso gustura egon gara beraiekin.

Irratsaioak Oiartzun Irratian grabatu ditugu eta argazkietan klik eginda entzungai dituzue. Ongi pasa nahi baduzue, ez zalantzarik egin eta entzun egindakoaren emaitza!

Mila esker Lur, Gaizka eta Anderri, baita Oiartzun Irratiko Alazne eta Itsasori ere!

Esperientzia oso polita izan dugu!

LEHEN HEZKUNTZA 3

Matematikarekin jolasean


Aurtengo ikasturtean LH3. mailakoak matematikarekin jolasean aritu gara. Horretarako, astero saio bat txokoetan aritzeko erabili dugu. Azken txanpa honetan geometria lantzen aritu gara.

Hala ere, ikusi-ikusi zenbat jolas berri ezagutu ditugun ikasturte honetan...

Color code
Hainbat irudi konbinatuz
irudi berriak osatu. Hau
bai hau erronka!

$3 \times 4 =$ ZAS!
Ederki aritu gara biderketak
ikasten. Dagoeneko buruan
ditugu erantzun guztiak!

I sea 10!
Zenbakiak txandaka
ateratzen joan eta ea 10
ikusten dituzun!






LEHEN HEZKUNTZA 4

Hilerokoaren mundura gerturatzen

Ugalketarekin lotutako unitatearen lanketa dela eta, Maddalen Aristegiren bisita jaso dugu. Maddalen Lore Gorriko kidea da eta hilerokoari buruzko tailerrak egin ohi ditu, besteak beste. Normalean gorputz menstrualekin aritzen bada ere, bere saioa egokitu du eta hilerokoaren mundura inguratu gaitu.

Zikloa naturaren urtaroeekin eta gorputz guztiaren batasunaren ikuspegitik azaldu digu; eta hilerokoaren ziklikotasuna ulertzeaz gain, gorputzean eta sozialki gudan izango duen eragina ulertzen ere lagundu digu.

Gai hau tabu den gizarte batean, ulertu eta positiboki bizitzera hurbiltzeko baliagarri izango zaigun saioa izan da. Dinamikoki eta modu argian gure etorkizun hurbila ulertu eta disfrutatzeko pauso berezi bezain ederra eman dugu. Gure gorputza entzun eta aurreiritziak baztertzen lehen pausoak egin ditugu.



LEHEN HEZKUNTZA 5

Nire egunerokoa

Eguneroko maitea:

Oporretatik itzuli gara eta gaur izan da ikastolako lehen eguna. Lagunak ikusteko irrikitan nengoen eta goizean tartetxo bat izan dugu elkarri abenturak kontatzeko. Jarraian lagun guztiak ikastolako jangelara joan gara eta bertan Burnizko potoa liburua aurkeztu digute Antton Kazabon, Jokin Mitxelena eta Antton Mendizabalek. Irakurtzeko desiatzen nago!

Jolasgaraian korrika eta harrapaketetan jolastu naiz eta neka-neka eginda itzuli naiz gelara. Ingurunea genuen eta taldeka esperimentuak egin ditugu, substantzietan eta hauen nahasketez pila bat ikasi dut eta bat edo beste ere probatu dut. A ZE NAZKA!

Arratsaldea ziztu bizian pasatu zait, jolastera joan gara Txara parkera. Han errekan txabolak egiten, polizia eta lapurretara jolasten, lasai-lasai hizketan eta beste mila gauzetan jolasten ibili gara.

Beno, agurtzeko momentua iritsi da. Euskarari ikusi dugun moduan, nire bizipenak zuri kontatu dizkizut etorkizunean ere egun zoragarri hau gogoratzeko.

AGUR!



Auto elektrikoak



Imanak, elektroimanak, zirkuitu-elektrikoak... A ze kable mataza askatu behar izan dugun azken hiruhil honetan! Puntzoiak eta kola-pistolak ere ez ditugu faltan izan proiektu honetan. Etxean erabilitako tetrabrik ontziak aprobeztatuz, bakoitzak gure auto elektrikoa egin dugu.

A! Hamilton eta Bottasek edukiko balituzkete gureak bezalakoak!

DBH 1

Asmakizunak

Unitate honetako gai nagusia “Asmakizunak” izan da. Hau honela, lehenik eta behin, zerrenda batetik gai jakin bat aukeratu behar izan dugu. Behin gaia aukeratuta, gai horren inguruko testu bat irakurri eta bertatik informazio garrantzitsua ateratu dugu. Bildutako informazio garrantzitsua taula batera pasa eta honekin esaldiak sortu ditugu.

Ondorengo pausoa, lehenagotik aukeratuta geneukan gaiaren inguruko asmatzaile bat aukeratu eta honekin erlazionatutako informazioa aurkitzea izan da, non asmatzailearen biografia txiki bat idatzi behar izan dugun. Azkenik, aukeratutako gaiaren inguruko asmakizunen denbora lerroa sortu dugu webgune jakin baten bitartez.



Ur zikina ur garbi proiektua

Ur zikina ur garbi bihurtzea izan da gure helburua. Horretarako, lehenik eta behin, metodo desberdinak aztertu ditugu, ondoren erabilgarriena iruditu zaiguna aukeratzeko. Gure esperimentua diseinatu eta burutu aurretik, emaitzaren inguruko hipotesi desberdinak ere planteatu ditugu. Hemen daukazue ura garbitzearen inguruko esperimentuen argazki batzuk!



DBH 3

Elkarmaker



Elkarmaker ekimenak STEM arloetan (Science, Technology, Engineering and Maths) izaera ekintzaileko jarrerak indartzen ditu. Elkarmaker ekimenaren ardatza heziketa maila ezberdinen arteko elkarlana da eta proiektu honetan aritu dira lanean LH3 eta DBH3. mailetako ikasleak.



Lan mundura urratsa

Etorkizunera begira jarri eta ez dugu urruti DBH4. mailakook lan mundua. Baina zer dakigu lan munduaz? Zer lantegietaz? Zer gizartearen antolaketaz? Zer langile izateaz? Zer lan kontratuez? Zer enpresez? Eta zer enpresa motaz? Denek berdin funtzionatzen al dute? Lansariez? Zer ekonomia sozial eraldatzaileez? Zer ekonomia burujabetzaz?

Esperientzia hurbilago baten bila hasi eta ekonomia sozial eraldatzailean partaide diren lau enpresa ezagutzeko aukera izan dugu. Haien inguruko ikerketa egin eta haiekin elkarriketa eginez amaiera eman diogu bai hiruhilabeteari, baita ikasturteari ere. Hainbat enpresa oiartzuar eta ez oiartzuar, nolabait guregandik hurbil daudenak ezagutu ditugu. Horiek TaPuntu, Skura Mobile, Labore eta Zituene izan dira; lau esperientziak OlatuKoop sareko kide, ekonomian eta ekintzaile ekonomikoan modu eraldatzailean jarduten duten enpresa, elkarte, erakunde eta kooperatibek osatutakoa. Haiekin asko ikasi dugu, batez ere ekonomia ulertzeko modu berrien ikuspegia ireki zaigu.

Zumai, Elhorri, Eneritz eta Julen TaPuntu kooperatiba txikia ezagutzen aritu dira, marketin digitaleko aholkularitza oinarritzen den taldea. Haien ibilbidea eta gaur egungo funtzionamendua ezagutzeaz gain, ekonomia sozial eraldatzailearen aldeko apustua zergatik egin duten adierazten aritu zaizkigu: "Eraikitze modu desberdinak daude, guk gure lana egin nahi dugu, baina, era berean, beste jende batekin lana egin nahi dugu, ahal bada eta ongi badoa jende berria gehitu proiektura, eta egiten duguna denontzat onuragarria izatea, ez solik sortu zuenarentzat diru-iturri izan eta listo". Mikel Olaiz eta Lore Zubizarretarekin online bideratutako elkarriketarekin oso gustura geratu gara eta argi geratu zaigu zergatik den pertsona lantegiaren erdigunean jartzea garrantzitsua.

Labore Oarson, berriz, Jon Legorbururekin egoteko aukera izan dute. Kalitatezko bertako produktuak eta produktu ekologikoak saltzen dituen elikagai dendaren hastapenak, funtzionamendua eta etorkizuneko asmoen inguruan aritu dira Irati, Negu, Unax, Maialen eta Nahia, Legorbururekin elkarriketan. Ekonomia bertatik bertakoentzat bultzatuz, guk geuk ere zer aukera ditugun mahai gainean jarri.

Skura Mobile app-ak sortzen dituen beste kooperatiba txikia da eta bertan Maitena Urretabizkaia bazkideetako bat da, gure ikastolako ikasle ohia eta gaur egun guraso dena. Maitenarekin zer egiten duten eta enpresa nola antolatzen den jakiteaz gain, beraien taldean pertsonak erdigunean jarri eta bizitzak bizigarriagoak egiteko saiakerak zer garrantzia duen ezagutu dute Julen, Nora, Xabier, Ur eta Albak. Lan egiteko modu berria, pertsona erdigunean jartzen duena.

Eta azkenik, Zituene kooperatiba ezagutu dugu. Zituene pasta ekoizten duen lantegia da, Ourretan kokatzen den arren, Oiartzunen Laboren eta astelehenetan Oiartzungo plazan eros daitekeela kontatu digu bertako bazkideetako bat den Naiara Retegi ikasle ohiak. Zitueneren ibilbidea, zer onura dituen lantegiko langile eta jabe izateak, eta zerk bultzatuta eman zuten pausoa ekonomia sozial eraldatzaile eta burujabea defendatzen jarduteko hizketan aritu da Suhar, June, Negu eta Lierni ikasleekin.

Ekonomia ulertzeko modu desberdin batera hurbiltzea, etorkizuneko lan jarduna ulertzeko beste modu eraikitzaileago bat ezagutzeko baliagarria izan da, eta oso interesgarria izan da esperientzi partekatze hau. Hurbileko esperientziak bertatik bertara ezagutzeak etorkizunerako izan ditzakegun aukerak irekitza dakar.

Mila esker esperientzia berrien bilaketan lankide izan ditugun lau taldeetako kideei!





Eskolako Agenda 2030: basoaz gozatzea, inoiz baino garrantzitsuagoa

Urtero legez Ikastolan Eskolako Agenda 2030 programa garatu dugu. Aurtengoan Garapen Iraunkorreko 15. helburua landu dugu, hain zuzen, *Lehorreko bizitza edo lurreko ekosistemak*. Baina Gipuzkoan egonik eta gure landaredia potentziala (giza jardunik gabe berez aurkituko genukeena), batez ere basoak direnez, Oarsoaldeko ikastetxe guztiok "Basoa"ren gaia lantzea erabaki genuen.

Ohi bezala, antolatu bezain pronto, sentsibilizazio eta motibazio-faseei ekin genien. Jarraian diagnostikoa egiten hasi ginen, hasieran ikastolakoa, bertakoa eta azkenik herriko diagnostikoa.

Ingurumen Batzordean diagnostikoa aztertu zenean, ondoko ondorioak atera ziren:

1. Ikasleek ez ditugu inguruko landareak eta animaliak ezagutzen. Denak berdinak dira guretzat.
2. Jolastokiko eremuak, ikastola inguruak berdeago nahiko genituzke: naturaz inguratutik, zelai eta zuhaitz gehiagorekin.
3. Jolastokiak material-naturalak erabiliz, beste modu batera berrantolatze beharra dago. Ikasleontzako beste aukerak eskainiaz.
4. Asteburuetan bildutako gazteok ikastolako jolastokietan kristalak eta hondakin ugari uzten ditugu. Hauek gure txikientzako arriskutsuak suertatzen dira.
5. Geletan atea itxi, hondakinak ondo sailkatu, argia itzali... seinalitika guztia garai batean ezarri zen. Baina egun ez dago gela guztietan. Bestetik, EA2030 ikurrak ez dituzte. Ikur berriaren presentzia behar da.
6. Ikastolako inguruan bertako espezieak landatu beharko lirateke.

7. Ikastetxe inguruko animaliak erakartzeko laguntza jartzea egokia litzateke, esaterako, txorien etxeak edo intsektuen etxeak.
8. Ikastetxeko energia-plangintzarekin urratsak ematen jarraitu behar da: argiteria eraginkorragoa ipinintzen jarraituz, galdarak aldatuz (gas naturala, pellet..).
9. Basoaren gaia curriculumean txertatuta daukagu eta ekintza eta jarduera ugari burutzen ditugu gaiaren inguruan (etapa guztietan). Egoera honetan aire librean egoteko premia gehiago dugu, baita klaseak kalean emateko ere.
10. Bakoitzak bere hondakinen ardura hartzea. Zakarrontzirik ez dagoen kasuetan gurekin eramatea.





Lehentasunak (helburuak):

Ondorio hauetan oinarrituta helburu hauek ezarri ditugu:

1. Ekintza eta irteera gehiago egitea ingurunea ezagutzeko eta baita landaredia, animaliak, basoak, baserri mundua...
2. Ikastetxeko jolastokiak eraberritzea: material naturalak erabiliz, berdeak izan daitezen saiatur, ikasleen interesetatik abiatuz eta seguruak.
3. Ikasgeletako seinalitika aldatzea, gela guztietan ezartzea, EA2030 ikur berriekin.
4. Gure ikasleak ingurumen arazoetan kontzientziatzea, bai gertukoak (asteburuetan, hondakinak lurrera botatzean..), bai planeta mailakoak (klima aldaketa..).
5. Ikastetxean energia garbiak eta aurrezteko planekin jarraitzea.
6. Ahal denean klaseak aire librean ematea.

Ekintzak:

Dagoeneko helburu hauek lortu ahal izateko hainbat ekintza egin ditugu, besteak beste:

1. Haur Hezkuntzako jolastokiaren eraberritzea burutu dugu, guraso bolondres batzuen auzolanari esker.
2. Haur Hezkuntzako 5 urteko ikasleek bai Oiartzungo herri lurretan bai ikastolako eremuan guk bildutako ezkurrekin lortutako zuhaixkak landatu ditugu. DBHko ikasleek ere Gurutzen herri lurretan sagarrondoak landatu ditugu. Hau guztia Ingurugela CEIDA eta Gipuzkoako Foru Aldundiko basozainek bultzatutako "Basoak ernatzen" proiektuaren barruan garatu dugu.
3. LH1. mailako ikasleak Arraztaloko baratzeak bisitatzerara joan gara. Baratzeetan lanean ere aritu gara. Naturaz gozatzeko hainbat irteera egin ditugu.
4. LH2. mailan Euskal Herriko paisaiak landu ditugu.
5. LH3. mailako ikasleak ingurunekeko landareak eta animaliak ezagutzeko fitxak osatzen aritu gara.
6. LH4. mailan munduko klimak lantzen aritu gara.
7. LH5. mailako ikasleek gure naturguneen maketak osatu ditugu. Herbarioak eta beste hainbat ekintza ere egin ditugu.
8. DBH2. mailakoek matematika arloan zuhaitzen neurketa metodoak aztertu ditugu.
9. DBH3. mailako ikasleek basoen garrantzia lantzeko bideak osatu ditugu.
10. DBH4. mailako ikasleek intsektuen etxeak eta txoriotoxoak etxeak ipini ditugu ikastola inguruko eremuan.



NON JAIO, HALA BIZI LH6. maila BIZIPOZA elkartearen alde

Non jaio, hala bizi. Horrela du izena LH6. mailako bigarren hiruhileko Ingurune arloko lanak eta "Hobetu dezakegu gure bizitza?" galdera egiten duen proiektu orokorrago baten barne kokatzen da. Lan hauek aurrera eramatekoan, gure ikasleek herrialde bateko baliabide-ezaugarrien eta bizi-baldintzen arteko erlazioak ondorioztatzen dituzte; ezaugarri horiek osasunean duten eraginaz ohartzen dira eta beharrez bizi direnen aldeko ekimenak planifikatu eta gauzatzen dituzte.

Mundiala, ezta? Iraultzailea: beren lekutik atera, premia handiagoak dituztenen galtzetan jarri eta, musu truk eta talde lanean, beraien alde lan egin, alajainkoa!

Horixe da gure gazteek egin dutena. Eta arrakasta osoz gainera! Bide horretatik jarraitzen badute, orain bai, gizakiak badu esperantzarik.



DBH4ko Eskuttuneko ikasleen agurra

Azkenean iritsi zaigu hain urruti ikusten genuen eguna, agur esateko eguna. Lau urte igaro dira Eskuttunen hasi ginenetik.

Gogoratzen dugu lehenengo egun hura: idazkaritzako atetik sartu eta denok batera bazkaldu genuenean. Garai hartan, lau urteak amaigabeak izango zirela uste genuen, eta orain, hilabete falta denean ikastolatik joateko, hementxe gaude, hau idazten.


Jendeak ez du ulertzen pertsona batek zergatik emango lituzkeen bere ostiral arratsaldeko ordu libre batzuk euskararen alde lan egiteko, baina hemen denbora hori igaro ostean, edonork ulertuko luke saio horiek transmititzen duten poza eta alaitasuna. Txikitatik Argitxo mirestu dugu, eta Eskuttunek bere laguntzaile izateko aukera emateaz gain, guk haurtzaroan sentitu genuena ondorengoei helaraztea zer den bizitu dugu.

Agur esateaz gain, eskerrak emateko momentua ere bada. Mila esker Eskuttunen alde egin duten irakasleei eta ikasleei, Donibane Azkarateri, Maider Lekuonari, Uxue Flamarikeri, Haizea Saezi, Ekhiñe Soroari eta Izaro Telletxeari ostiral eguadi eta arratsaldeak argitzeagatik, Eskuttuneko beste kideei, eta, noski, gure ama hizkuntza den euskarari.

Eta gogoratu! Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek erabiltzen ez dutelako baizik. Beraz, bizi euskaraz, jolastu euskaraz, ligatu euskaraz, maitatu euskaraz, parranda egin euskaraz eta oiheru egin euskararen alde eztarriak lehertu arte!

DBH 4ko Eskuttuneko partaideak

Eskolaz kanpoko ekintzak 20-21 ikasturtea



Ohiz kanpokoia izan den ikasturte honetan ere, ahalegina egin dugu eta eskolaz kanpoko ikastaro batzuk martxan jartzeko aukera izan dugu. Horren adibide dira:

ANTZERKIA

TRIKITIA

GITARRA

ATLETISMOA

BERTSOLARITZA

MEKANOGRAFIA
(ON LINE)

DANTZATU, BIZI eta HEZI
(dantza modernoa)

PANDEROA

ESKOLA KIROLA

Ikastolako zein herriko baliabide eta instalazioei esker, aurrera atera ahal izan ditugu eta ikasle talde ederrak hartu du parte.

Baditugu gure eskaintzako beste ikastaro asko ikasturte honetan martxan jarri ezin izan ditugunak, baina datorren ikasturteari begira, ea eskaintza zabaltzea lortzen dugun!

Eskerrak eman nahi dizkizuegu familiei eta ikasleei izandako pazientziagatik eta aurten ere egindako lanagatik. Ahaleginak egin ditugu ikasturte honetan eskolaz kanpokoei ere ahal izan den lekutxo hori egiteko eta zuen parte-hartzea proposatutako saioetan txalogarria izan da. Beraz, **ESKERRIK ASKO!**

Ezin dugu aipatu gabe utzi, hezitzaileek aurten bereziki egindako lana. Zailtasunak zailtasun, ahaleginak ahalegin, egindako lanak bere fruitua eman du eta Haurtzaro Ikastolan zorionekoak gara zuek bezalako hezitzaile talde **ZORAGARRIA** dugulako. Beraz, zuei ere, **MILA ESKER!**



Eusko Jaurlaritzaren erdi mailako IKT Heldutasun Ziurtagiria lortu du Oiartzo Ikastolak

Informazio eta Komunikazio Teknologiak zabaltzeak aldaketa eragin du pertsonen prestakuntza premietan, eta aldaketa horrek ondorioak ditu prestakuntza premiei erantzuteko ardura duen hezkuntza prozesuan.

Bide hori egiteko, Eusko Jaurlaritzaren IKT heldutasun ereduak daude. Ikastetxe bakoitzeko prozesuen digitalizatzeko mailaren diagnostikoa eta balioespena egitea bideratzen dute ereduak. Heldutasunaren hurrengo mailak lortzeko bidea ere erakusten dute, teknologiei, praktikei eta hezkuntza komunitateko eragile guztien gaitasunei erreparatuta, eta ikastetxearen berezitasunak eta berriazko premiak aintzat hartuta.

Oiartzok erdi mailako IKT Heldutasun Ziurtagiria lortu berri du. Maila aurreratua lortzeko lanean jarraituko dugu orain.



IKT-n heldutasun-maila
ERTAINA duen ikastetxea



R. M^a AZKUE LITERATURA SARIAK



Azkue Sarietan, berriro garaile

Ekainaren 1ean, asteartea, R. M. Azkue Literatura Sariak banatu zituzten Euskaltzaindiaren egoitzan, Bilbon. Haurtzaro Ikastolako ikasle hauek izan dira sarituak aurten:

- LH5. mailako **Maren Herrera Labandibar**: A mailako 3. saria narrazioan, *Kolore dantza* idazlanarekin.
- DBH1. mailako **Ane Mujika Txurio**: A mailako 3. saria, *Bakardadea* lanarekin.

Aurten, iaz bezala, **Haurtzaro Ikastolak ere saria jaso du lan gehien aurkeztu dituen ikastetxea izateagatik**: 150 idazlan guztira. 500€koa da saria.

Zorionak irabazleei eta zorionak Haurtzarori!



Haurtzaroren kilometroa Ar Redadeg-en



Korrika erreferentziazko ekimena da munduan. Horren adibide da **Bretainian egiten den Ar Redadeg**. Korrikaren formatu berdina du: kilometroak erosten dira, abesti bat dago, lekuko bat dago, mezu bat irakurtzen da eta korri egiteko milaka kilometro daude, bretoieraren alde. **Aurten ere, Haurtzaro Ikastola gisa kilometro bat erosi dugu: 509.a.**

2008an egin zuten lehenengo Ar Redadeg. 2018an, bosgarren urtean, hainbat oiartzuar izan ziren han korrika, tartean gure irakasle Josune Cousillas (Oiartzungo Kultura zinegotzia ere bada).

Dakizuenez, Oiartzun eta Bretainiako Karaez herria senidatuta daudela duela 28 urte. 2006. urtean, berriz, Haurtzaro Ikastolako kideok elkartrukeari ekin genion Gwiseni herriko Diwan eskolarekin: frantsesa aberastu, ikasi eta erabiltzeaz gain, kultura zein gizarte giro desberdinen arteko ezagutza eta hurbilketa egiteari. Hainbat urtez joan dira gure ikasleak hara, eta hangoak hona etorri.

509. kilometroa Roc'h – Morvan (La Roche-Maurice) herrian dago, **Diwan**-go ikastetxea baino 2 kilometro lehenago dago. Hala, **bertako ikasleek korri egin ahal izan zuten gure kilometroan**. Eskerrik asko gure ordezkariei!

PS: Pandemia egoeratik, ezin izan dugu jarraitu elkartrukearekin, baina osasun larrialdi egoera aldatu bezain laster berreskuratzea espero dugu.





Txikizioak ez daitezela udan errepikatu

Zoritxarrez, azken ikasturteetan ohikoa bilakatu zaigu, asteburu eta oporraldietan, **Hautzaro Ikastola eta Urmendiko eremuetan txikizioak pairatzea.**

Hautzaro Ikastolako instalazioak eta inguruko eremua Oiarzuarron eskura egon izan dira; herritik eta herrirako sortuak izan ginelako eta gure izatea beti horrela ulertu izan dugulako.

Hautzaro Ikastolako Hezkuntza Batzordetik eta Kontseilu Errektoretik, guraso, langile eta ikasleei dei egin nahi dizuegu, guztiok, **egoera honekiko jakitun izan eta irtenbide bat bideratzeko eragile izan gaituzten.**

Aurrera begira, **eta bereziki udako oporraldian,** pandemia egoerak bere horretan jarraituko duelako eta egoerak ezin duelako berdin jarraitu.

“Gehiago balio du milak egiten duten apur banak, batek egiten duen milak baino”.

Xabier Amuriza



Jakin-mina ziurtagiria

Maiatzaren 17an DBH4ko Ane Chancak, Araitx Ortegak eta Elene Etxegaraik ikasleak Jakin-mina programaren ziurtagiria jaso zuten.

Jakin-mina Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako DBH 4.mailako gazteentzako programa da, beren alorrean goi mailakoak diren adituen disziplina anitzeko hitzaldi-sorta batez osatua. Jarduera honekin, Jakiundek gazteen jakintza maila aberastu eta haien jakin-mina piztu nahi du, ezagutzen ez duten oro deskubritzeko grina sorraziz.

Covid-egoera tarteko, hitzaldi guztiak on line izan baziren ere, ziurtagiri banaketa Donostiako Aquariumean izan zen. Bertan izan ziren Jakiundeko Juan Ignacio Perez zuzendaria, Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusia eta Juan Jose Álvarez, UPV/EHUKo Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko katedraduna eta abokatua.

Azken horrek *Pandemia, Derecho y Sociedad* izeneko hitzaldia eskaini zien.



DBH4koen AGURRA

Txikiak ginela, ikastolari agur esatea oso urruti ikusten genuen, baina uste baino azkarrago iritsi da. Bitarte horretan, 13 urte igaro dira eta bidean lotura zahar batzuk hautsi eta beste berri batzuk sortu ditugu.

Orain gaudenak ez gara beti elkarrekin egon. Batzuk lehenagotik geunden elkarrekin eta beste batzuk beranduago etorri ziren gurera, baina gaur, denok talde eder hau osatzen dugu. Milaka bizipen bizi izan ditugu bidaia honek iraun duen bitartean, batzuk onak izan dira, beste batzuk, aldiz, ez hain onak. Batzuk garrantzak izan dira, besteak gozoak. Batzuk zailak izan dira, eta beste asko leunak eta errazak.

Orain nork bere bidea aukeratu eta aurrera egin behar du, eta ondorioz, taldea puskatuko da. Beraz, iritsi da elkarri agur esateko garaia.

Agur esateaz gain, eskerrak emateko unea ere iritsi zaigu. Mila esker gurekin etapa guztietan aritu zareten guztiei. Mila esker laguntza behar izan dugunean gure alboan egoteagatik, mila esker guregan sinisteagatik. Mila esker denagatik!

Gure garaia heldu da, heldu da gu trenetik jaisteko ordua, beste batean sartu eta aurrera jarraitzeko unea. Baina maleta hau gurekin eramango dugu, ez dugu hemen bizitutakoa inoiz ahaztuko, gure haurtzaroa bertan igaro dugulako eta horrek Haurtzarora lotzen gaituelako.

Gure ibilbidea ez da hemen bukatzen, etorriko baikara, bisitan bada ere.

Eta errepikakorra bada ere, mila esker eta laster arte, ez zaituztegu inoiz ahaztuko!

DBH 4ko ikasleak





Haurtzaro Ikastola
bizitzarako hezkuntza

DBH4 - 23. promozioa - 2021